

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 281/2020 Erabakia, ekainaren 30ekoa. Behin betiko onespena ematea Añanako udalerrirako egindako ondasun higiezinaren gaineko zergari lotuta dagoen hiri lurzoruen mugaketari

Ekainaren 1eko 245/2020 Foru Aginduaren bitartez, behin-behineko onespena eman zitzaion ondasun higiezinaren zergari loturiko Añanako udalerrirako hiri lurzoruen mugaketari, udalerrirako plangintzako arau subsidiarioetan egindako hainbat aldaketa puntual direla eta egin beharreko eguneraketa gauzatzeko.

2020ko ekainaren 17an, Añanako Udalak alegazio idazki bat aurkeztu zuen udal arkitektoaren txosten batean oinarrituta, eta zenbait zuzenketa proposatu zituen. Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuak alegazio horiek baietsi ditu.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatu titularrak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea, honekin batera doazen planoen arabera, ondasun higiezinaren zergari loturiko Añanako udalerrirako hiri lurzoruen mugaketa, udalerrirako plangintzako arau subsidiarioetan egindako hainbat aldaketa puntual direla eta egin beharreko eguneraketa gauzatzeko.

Bigarrena. Hori gorabehera, kontuan izan behar da ondasun higiezinaren gaineko zergaren uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak 3.2.b) artikuluan ezarritakoa, hiri izaerako eraikinek okupatzen dituzten eta herriguneetatik kanpo dauden lurzoruen tratamendurako.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn eta lurralde historikoan zabalkunde handiena duten egunkarrietan argitaratuko da. Gainera, jendaurrean egongo da 15 egunez, interesdunek egoki irizten dituzten erreklamazioak jar ditzaten. Añanako Udalaren bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, 11. artikulua 5. apartatua, eta hura garatzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuak, 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 30a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

M^a JOSÉ PEREA URTEAGA